

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**

2011ko urriaren 14a

304. zenbakia. 23. urtea



## **Txori bakoitzak bere kantua**

Héctor González ornitologoak hegaztien kantua ez ezik, hegada edo makurtzeko modua behatzen ditu txoriak ezagutzeko

**05**

**Orioko kontuak**  
Aholku batzordeak

**10**

**Aiako elkarrizketa**  
Maria Vilches

**18**

**Moila bazterretik**  
Onintza Aiestaran

**22**

**Kritika**  
Giranice. Iñigo Gaiton



Sukalde eta bainuen erreformak

# XANTI MUJIKA

## Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37



FIOTERAPIA - Garbairu Arriola eta Antola Maritena  
MULTIMODISTA - Gernika Auzoa

# sinergia

investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38


orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net



Restaurante

943 83 22 29



Santorerka

# uranga

autozerotzua



Aliprox

Enplegu Gaiak Ialra 13-15  
OPIC  
943 83 18 75



Tf: 943 13 04 38



Marigre Zaldua  
aseguru agentea

Euzko Ondo, 10 behe-oina  
Telefonoa: 943 13 47 80  
fax: 943 61 67 52  
e-mail: zaldua.dolores.pa@allianz.es

ecovitegia

# ANTILLA

gestioa

Alfonso Kaler, 2 - TEL. 943 83 23 00

Kalkuladenda - Ume arropa



www.lasone.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

25% DESKONTUA FAMILIA  
UGARTEN TXARTELAREKIN



# Sagasti

## LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arantzale kalea, 65  
20810 Oriz (Gipuzkoa)

# ARISTERRAZU

jatebxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

# LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

<p>Taldea Agua Industrialdun Agite. N. 10740 Zamora</p>	<p>Erakusketak San Francisco, 1. 20400 Zamora</p>	<p>Erakusketak Alca Lectoran, 21. 20410 Oriz Tel: 943 09 49 24</p>
---	---	--

# Automóviles ZARAUZ

ETIKEN ZERBITZU DEIALA

POBLEN GAI ORRIEN ZERBITZU DEIALA

ZARAUZ. TEL. 943 15 13 50



# TAILER MEKANIKOA

## MANTEROLA S/L

TRAPPOZAK - SAIKURAK

Santiago auzoa - 18 postak.bta  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
70 B10 ORIO - GIPUZKOA




Esperako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriarekin



# ORIOGI

OPIL OKINDEGIA  
frontoi ondoan

Tfnoa: 943 83 01 89

## Agirian zure sinadura besterik ez da falta

**1**

Gau ilun baten etxean sartu ta ekarri ninduten hona. 20 urtean 10 kartzela desberdinetan egona. Berriz epaile aurrean nago horixe da gauza ona, nahiz ematen duen broma hain daukat gaur poz sakona. Baldintzapeko askatasuna eman eta zoriona, askatasuna balitz bezela baldintzapean dagona.

**2**

Kartzela gutxi balitz bezela gaitzak egin dit atake. Soto, Alhaurín, Alcalá, Curtis, Valdemoro ta gaur arte. Mahaian gainean dago papela sinatu eta ze pake. Oriara naramate, inorentzat ez da kalte. Hainbeste aldiz eskatu ondoren, jo ta gero mila ate, bizitzen utzi ez didatenek hiltzen utziko didate.

**3**

Hogeita hamar urte nitula artean nintzan gaztea. Berrogeita hamar badituz jada ze bizimodu tristea. Baina ez dute pentsatuko ba orain damutzen hastea. Gaur bidea da bestea, hitzari bide uztea. Beste gauzarik ez det desio apustuari eustea, ta hiltzen naizen baino lehenago denak libre ikustea.

# 304

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea,**  
Eusko Gudari, 26  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com

### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

### Zuzendaria

Ana G. de Txabbarri

### Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegia

### Erredakzio taldea

Pat Cowie,  
Miren Etxeberria,  
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

### Publizitatea

Pat Cowie

### Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze  
eta Iker Gurrutxaga

### Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria  
eta Jabier Zabaleta

### Ale honetako laguntzaileak

Alberto Agirreazaldegia,  
Iñigo Gaiton  
eta Ixabel Unsain

### Laguntzaileak

Oriintza Aiestaran  
eta Iñaki Iturain

### Diseinua

Karkara taldea

### Banatzaileak

Cristina Burlacu  
eta Iban Recio (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremen daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



Gipuzkoako txapelketan, Elgoibarko final zortzirenean, kartzelako ariketan kantatutako bertsoak. KARKARA

### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

#### Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin  
(695 78 07 20) edo  
publizitatea@karkara.com  
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

### LAGUNTZAILEAK



### EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Gazte festak 2011

Amaitu dira aurtengo gazte festak eta badatoz datorren urtekoak. Bidean, joandakoen balorazioa egitea tokatzen da orain eta horrek ekarri gaitu KARKARARA. Luze jotzen dute gazte festen prestaketek eta, kronologikoki, bi zatitan egin nahi dugu aurtengo azterketa:

1.- Antolaketa bera. Herriko koadrila guztiek fase honetan parte hartu zeza ten nahi genuen eta horregatik egin genituen antolatze moduan aldaketak. Ekintza bakoitza koadrila baten esku utzi genuen, baina ez ditu nahi genituen emaitzak izan; beharbada, asteburu batek ez duelako denok zer bait antolatze ko adina denbora ematen –edo auskalo zergatik–, betiko koadrilatako betiko jendea ibili da, atzera eta aurrera, denera iritsi ezinik. Datorren urterako pentsatu beharko da honi nola ematen diogun buelta!

2.- Asteburua bera. Lehen esan dugu ekintza bakoitza antolatze ardurakoadrilen artean banatu zela; zorionak eta bejondeizuela! Danborradak bikain alaitu zuen herria Bilbotik zetozen albistei aurre eginez –Aupa Kukutza!–, paela lehiaketan eta bazkarian 200 lagunetik gorakoa da urtero plaza betetzen duen jende kopurua, *Inezetz* jolasetan gehienek egin zuten –lotsa galdu, behintzat, bai–, txirigotekin barre egin eta, batez ere, denok elkarrekin txikiteatu genuen, baltsa lasterketak tokia egin du jada herritarron agendan eta musikariek plaza paregabea dute Orioko gazte festetan –soziedadetik hasita–.

Izan genituen koordinazio arazoak arazo –txosnako txandak, puntualitatea...–, harro eta lasai esan genezake Orion urtero egiten den jairik parte-hartzaileenaren antolatzaile garena. Herri gintzak asko eskatzen du; baina, ematen duenarekin, alderatuta ezer gutxi. Eskatzen duena eman diogunok pozik gaude eman digunarekin eta gure pozak inori inbidiarik ematen badio, beso zabalik izango gaitu 2012ko jaiak antolatze ko lanean zain. Askok da mantentze ko daukaguna eta beste hainbeste hobetzeko dagoena. Denon artean errazago egingo dugu! ■ **Gazte festak antolatze ko asanblea.**

## Prest al zaude?

Asteazkenean gutako asko eta askok jai egin du, egutegi ofizialean –hala jarri digutelako, nahiz eta batzuk, agian, nahi ez– gorriz genuelako urriaren 12a. Gaur egun Dominikar Errepublika dena, orduan La Española deitu zutena, konkistatzen hasi zirela 519 urte igaro direla-

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtze ko eskubidea.

eta egin dugu jai gustura asko. Bejondeigula!

Egia da, bai, hori aldatze ko aukera izan bagenu, agian, beste egun bat aukeratu genukeela askok. Baina beno, egutegi ofizialeko jaien eztabaidak luze jo dezake. Noan harira.

Esan bezala, 519 urte dira 1492an Cristobal Colón Amerikara iritsi eta sarraskia egiten hasi zenetik. Garai hartan nahi hori zuten Errege Katolikoek, Gaztela eta Aragoiko Erresuma ahalik eta gehien zabaltze ko nahia.

Datorren urtean 500 urte beteko dira errege-erregina haiek Nafarroaren konkistarekin hasi zirela. Gaur egun beste-lako irudia saldu nahi duten arren Nafarroako Gobernutik, egia bestelako izan zen. Odola toki guztietatik eta lehenago lagun ziren asko, elkarren artean borrokan. Loiolako san Inazio bera ere bertan izan zen Gaztelaren alde borrokatzen, eta san Frantzisko Xabierkoa, beste bandoan, Nafarroaren alde. Atera kontuak.

Orain hori jendearen gogora ekartze ko garaia da. Aldaketa politikoa izan da gure herrian, bai Orion eta baita Gipuzkoan ere. Nafarroako konkista baino lehenago saldu gintuzten Gaztelara, baina Orioko lurrak ere Nafarroako Erresumarenak izan ziren.

Herri honek urteetan bizi izan duen gatazka politikoaren muina nondik datorren jakinarazte ko ordua da. Herritarrok gure historiak gehiago jakite ko ordua da. Gure haur eta gazteek liburuetan jartzen duenaz aparte historia gehiago jakite ko eskubidea dute.

Gai interesgarria delakoan nago, eta gu honen inguruan benetan lo gaudela uste dut. Herri bat garena diogu, baina askok ez dakigu zerk egiten gaituen herri. Hizkuntzaz haratago doa kontua, nire ustez. Bisitatu itzazue honako bi atariak eta, plazer baduzue, erantzun gutunari datorren Karkaran:

[www.puntubi.com](http://www.puntubi.com)

[www.1512-2012.com](http://www.1512-2012.com)

Ea Udalak behingoz 1512-2012 Nafarroa bizirik plataformaren mozioa onartu eta herrian mugimendu bat sortze ko gai den. Ni mugimendu horren parte izate ko prest nago. Eta zu, prest al zaude? ■ **Orion jai eta bizi den nafar bat.**



Besteak beste, hondartzaren egoera aztertzeko, aholkularien beharra nabaritu du Udalak. KARKARA

# Aholku batzordeak osatzeko lanetan hasi da Orioko Udala

Herritarren parte-hartzea bultzatzeko, momentuz, lau mahai deitu ditu Udalak: festetakoa, ingurumenekoa, kirolekkoa eta kulturakoa. Eragileak gonbidatu dituzten arren, lan-talde irekiak dira.

Orioko Udalak, herriko eragileen laguntzaz, aholku batzordeak eratzeko lanak hasi ditu. Dagoeneko lau mahai abian jarri badira ere, beharren arabera gehiago eratzeko borondatea dute udal gobernukoek.

Kultura mahaia lehen ere abian zen: 2008/2009 ikasturtean hasi zuen ibilbidea eta 2010ean utzi zion bilerak egiteari; orain berriz jarri nahi dute martxan. Hamar bat talderekin banaka bildu eta gero, azaroan egingo dute lehenengo bilera ofiziala. Lehen bilera horretan ma-

haiak nola funtzionatuko duen erabakiko dute.

Hala ere, Jon Agirresarobe kultura zinegotziak azpimarratu duenez, *kultur mugimendua, ekintzak, taldeen arteko harremanak, proiektuak eta beste gauza asko lantzeko lekua izango da. Bakoitzak dituen arazoak banaka landu beharko dituzte. Herriko kultura mugimendua sustatzeko batzordea da.*

Beñat Solaberrieta alkatearen ustez, *aholku batzordeek eraginkorrak izan behar dute, ez ditugu polita egiteagatik sor-*

*tu. Benetan beharra zegoela ikusi dugu, eta herritarren parte-hartzea bultzatu nahi dugu.*

*Horretarako, elkartez gain, herritarrek ere nor bere izenean azaltzeko aukera izango dute; hartara, aukera izango dugu dauzkagun adituak eta jakintza metatua baliatzeko.*

Kirol mahaia legealdi honetan sortu da lehen aldiz. Bertara, kirol taldeez gain, bi ikastetxeak ere deitu dituzte, eskola kirolak duen garrantzia aintzat hartuta. Dagoeneko bi bilera egin dituzte eta hirugarren bat egitekotan dira urriaren 17an.

## Dagoeneko lau mahai abian jarri badira ere, beharren arabera, gehiago eratu nahi ditu udal gobernukoak

Festa batzordea lehenik ere bazegoen arren, beste modu batera antolatuta nahi du Jon Agirresarobe zinegotziak. *Aldez aurretik lanean jardun dugu eta urriaren 13ko bileran taldeekin landutako proposamenak aurkeztu genituen. Orain mimo handiz sanikolasak landu beharrean gaude.*

Azkenik, Topagune Berdea deitu duten ingurumen batzordea dago. Printzipioz, Orioko Surf Taldea, Herrio natur taldea eta Orioz Zabor taldea deitu dituzte.

*Ingurumenean lan handia dago egiteko eta horretan benetako adituak baditugu herrian eta horiekin lan egin beharra dago Solaberrietaren hitzetan.*

Urriaren 11n bildu ziren aurreneko aldiz eta premiak aztertu, zerrendaratu eta lehentasunak markatu zituzten izandako bileran.

### Barne araudia

Udalaren barne araudia amaitzen ari da udal gobernua. Urriaren aztertuko dute Udaleko teknikarien eta zinegotzi guztien artean eta herritarren ekarpenak ere jasoko dituzte gero.

Bertan, besteak beste, aholku batzordeen definizio zehatza egingo dute. Horrez gain, batzorde horietan nola parte hartu ere zehaztuko dute.

### Herritarren parte-hartzea

Batzorde horien bidez, herritarren parte-hartze aktiboa sustatu nahi du Udalak. Alde batetik, herritarrengana gerturatzeko eta, bestetik, haien ekarpenak zuzenean jasatzeko.

Hori dela eta, nabarmendu dute mahai horietan ekarpenak egin nahi dituzten herritar guztiek zabalik dituztela ateak eta lotsarik gabe azaltzeko, gustura entzungo dituztela eta.

# Nerea Arriagak irabazi du Urnietako Maria Arizmendi irrintzi txapelketa

Irrintziaren iraupena, doinua, indarra eta amaiera kontuan hartuta, epaimahaikoen eta entzuleen ustez, ez zuen parekorik izan oriotarrak botatako irrintziak.

Maria Arizmendi 3. Irrintzi Txapelketa izan zen San Migel egunean, Urnietako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak antolatuta. Urnietara hurbildutako irrintzilarien lana entzuteko gogoz ziren Jakutegi plazara gerturatutakoak eta horien nahia ase zuten lehiakideek.

Guztira zazpi emakume aurkeztu ziren lehiaketara: Orioko Nerea Arriaga Azkue; Naiara Plaza Elordi berriatuarra;

Tolosako Izaskun Arriola Azkue; Maixux Bikaindi eta Arantzazu Garmendia Elola donostiarrak; Fernanda Paz, Urnietan bizi den kolonbiarra; eta Lezoko Marian Urraca Zabalegi.

Rosa M. Elosegik, Juan Karlos Erasunek, Iñigo Orunak eta Jon Unanuek osatutako epaimahaia lau ezaugarri hartu zituen kontuan irrintziak epaitzeko: iraupena, doinua, indarra eta amaiera.

## Irrintzi dotorea

Irrintzi bana bota ondoren, Nerea Arriaga Azkue oriotarrarenak parekorik izan ez zuela iritzita, honek irabazi zuen txapelketa. Antolatzaileen esanetan, *azala oilo-ipurditan, jartzeko moduko irrintzi dotorea izan zen: luzea, indartsua, doinu apartaz eta amaiera bikain batekin egin zuena. Beste horrenbestekoa izan zen behin saria irabazita urnietarrei berriro eskaini ziena.* Naiara Plaza Elordi izan zen bigarren eta Arantzazu Garmendia Elola hirugarren.

Irabazleak garaikurra eta 100 euroko diru saria jaso zituen.



Nerea Arriaga irrintzia bota zuen unean, Jakutegi plazako karpan. JON A. UBEDA

## LABUR

### Euskara

#### Errenta aitorpena

Urola Kostako Udal Elkarteak kanpaina bat egin du eskualdekoak errenta aitorpena euskaraz egitera animatzeko. Orion, 399 aitorpen egin dira euskaraz; egindakoen %13,98; iaizkoarekin alderatuta, hiru puntu igo da. Izan ere, 308 aitorpen egin ziren euskaraz, guztien %11. Oraindik jende gehienak gaztelaniaz egin arren, pixkanaka ohitura aldatzen ari da eta gero eta gehiagok egiten du euskaraz.

### Lanak

#### Konponketak Abaromendin

Abaromendin arazoak izan zituzten babes ofizialeko eta tasatutako etxebizitzetako batzuek. Hori dela eta, konponketak egiteko beharra zegoela salatu zuten eta etxeak eraiki zituen enpresari zegokiola ordaintzea. Enpresak porrot egin zuela ikusita, Udalak ordainduko ditu Abaromendin egin beharreko konponketa horiek, beste lan batzuk egin ostean geratu zaion soberakinarekin. Dena dela, Orioko Udalak bide judiziala hartu du etxeak eraiki zituen enpresaren kontra, arazoari irtenbidea emateko.

### Bertsolaritza

#### Lautik bat, aurrera

Gipuzkoako bertsolari txapelketako azken final zortzirenak jokatu ziren aste bukaeran Lasarte-Orian eta Irunen. Iñaki Gurrutxagak ziurtatua zuen final laurdenerako txartela. Gpuntuan parte hartu duten gainontzeko bertsolari oriotarrak, ordea, puntuaketen zain zeuden, aurrera egingo zuten ala ez jakiteko. Xabier Sukia atarian gelditu da, 24 bertsolarik egin baitute aurrera eta 25. izan delako. Ibai Esoain eta Egoitz Eizagirre ere bidean geratu dira. Gurrutxagak Oñatin izango du hurrengo saioa urriaren 22an.

# Martxan jarri dira berriz ere Orioko saihesbidea egiteko lanak

Hilabete batzutan geldirik egon dira Orioko saihesbidea egiteko lanak. Irailaren 15ean ekin zioten berriz lanari eta datorren urtearen hasierarako bukatuta egotea espero dute.

Hilabete eskas da Orioko saihesbidea egiteko lanei berriz ekin ziotela Eusko Trenbide Sareko langileek. Irailaren 15ean ekin zioten Aitzondotik hasi eta Mota baserriaren azpiraino doan errepedea egiteari.

Kilometro pasatxo izango du errepede tarte horrek eta, kamioaz gain, ingurua egokituko eta biribilgunea ere egingo dute tren geltokiaren inguruan, herriko zubia, Santiorako bidea, Zarautza doan errepedea eta saihesbidea elkartuko diren puntuan.

Horretarako, inguru horretan errepedea moldatu eta doitu beharko dute biribilgunearen beharretara. Txukunketa ederra egingo dute eta, horrez gain, errepedea gurutzatzeko goiko pasabide bat egingo dute, oinezkoek errepedea gurutzatzerakoan orain arte izan dituzten arriskuak saihesteko.

## ETSrekin bilera

Urriaren hasieran bildu zen Beñat Solaberrieta alkatea Eusko Trenbide Sareko zuzendaritzarekin eta lanaren nondik norakoak aztertu zituzten.

Lanen ordainketa ETSren eta Aldundiaren gain dago, elkarrekin duten hitzarmen baten ondorioz. Gaur egun, Orioko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia negoziatzen ari dira falta den dirua eskuratu eta lanak ahalik eta lasterren bukatzeko.

Beñat Solaberrieta alkatearen ustez, *herriko irisgarritasuna baldintzatzen digu saihesbidearen lanak. Herriko sarrera-irteera eta herri erditik igarotzen diren autoak murriztea ezinbestekoa da, herri barruan bestelako egitasmoak gauzatzeko.*

*Eusko Gudari eta Abeslari kaleetan, esaterako, 500 inguru auto ibiltzen dira egunero eta horri irteera eman behar diogu, gaineratu du Solaberrietak.*

Urtarrilerako fase honetako lanak bukatuta egongo dira eta saihesbideko azken zatia baino ez da geratuko egiteko.

## Azken fasea

Lanaren azken fasean erriorearen bi aldeak lotuko dituen zubia egingo da. 2008an egin zuten proiektua eta horrekin bukatuko da saihesbidea.



Lehenengo errepedearen ondoan ari dira berria egiten. KARKARA



Zubia eraikitzea izango da azken lana; baina ez dute orain egingo. ALDUNDIA

# Bi porrot eta garaipen batekin hasi du denboraldia saskibaloit taldeak

Alustiza Autobusak-Orio taldeak estraineko urtea du Gipuzkoako 2. mailan eta lehen hiru partidetatik bi galdu dituzten arren, nahikoa gustura daude jokalariaik.

Mailaz igotzen den taldeak ez du erraza izaten bertara ohitzea, eta gehiago kostatzen da taldean jokalaria berriak sartzen direnean. Alustiza Autobusak-Orio taldeko mutilei hori pasa zaie. Iaz taldean zeudenetatik erdiek besterik ez dute jarraitzen eta zailtasunak dituzte partidetan guztiak izateko.

Lehen partida Pasaian jokatu zuen talde oriotarrak, eta luzapeneko azken se-

gundora arte markagailuan aurretik izan ziren. Huts baten ondorioz, baina, aurkariak saskiraketa erraz bat egin zuten azken segundo horretan eta 60-59 galdu zuten oriotarrek.

Bigarren partida etxean izan zen, Ordiziaren aurka. Hasieran estu samar ibili baziren ere, bukaeran erraz nagusitu ziren oriotarrak. Jokatu duten azken partidari 9 puntuz galdu zuten Urretxun,

Goierrri taldearen aurka. Partidan zehar 20 puntuz baino gehiagotatik galtzen joan arren, bueltakorako markagailua txukundu zuten oriotarrek.

## Eskolartekoa martxan

Benjaminen 3x3ko eskolarteko jardunaldiak ere martxan jarri ziren urriaren 8an. Lehen jardunaldian, Ikastolako eta Zaraguetako taldeek Karela kiroldegian izan zituzten partidak. LH 3. eta 4. mailako 12 talde ari dira guztira eskolartean lehiatzen eta hemendik hasi eta Gabonak arte iraungo du benjaminen saskibaloit denboraldiak.



Entrenamenduetan taldekoak ez diren hainbat jokalarik ere jokatzen dute Alustiza Autobusak-Orio taldeko mutilekin. KARKARA

## LABUR

### Zaldiak

#### Kukuarriko 2. lasterketa

Urriaren 16an jokatuko da zaldi lasterketa. Goizeko 9ak inguruan hasita 40 kilometroko ibilbidea bete beharko dute zirkuituari bi itzuli emanez. Orioko hondartzan hasita, Ixtaspe, Igeldoko txakurtegia, Lusarbe, Egiluze, Orioko Benta, Munioeta, Longa, Andu, Ixtaspe eta Talai pasa eta berriz ere hondartzara itzuliko dira. Lasterketa 14:00ak aldera bukatuko dela esan dute antolatzaileek.

### Pilota

#### Eskolak martxan

Duela hilabete hasi ziren Orioko pilotalekuan pilota elkarrekin antolatutako eskolak. Iaz bezala, 10 euro ordaintzen dute hileko ikasten dabiltzan haurrek eta eskolak astearte eta ostegunetan izaten dira 17:00etatik 19:00etara. Oraindik izena eman gabe dauden haurrek entrenamendura azaldu eta Eneko Galarragarekin hitz egitea nahikoa izango dute denboraldiaren nondik norakoak jakiteko. Iaz 5 urtetik hasi eta 13ra bitarteko neska-mutilak ibili ziren arren, eskolak adin guztietako herritarrentzat dira.

### Atletismoa

#### Orioko 3. Herri Lasterketa

Urriaren 23an, goizeko 11etan, Orioko 3. Herri Lasterketa izango da. Aurreko bi edizioak Udalak antolatu ostean, Orioko Herri Ikastolak antolatu du 3.a geldialdi bat eta gero. Izen-ematea 8 euro izango da eta [www.herrickrossa.org](http://www.herrickrossa.org) eta [www.oriokoikastola.net](http://www.oriokoikastola.net) web orrialdeetan egin beharko da. Bestalde, Nerea Amilibiak Elgoibarren San Migelerako igoera proba irabazi zuen laugarrenez, 24:28ko denborarekin. Horrez gain, Hossain Kaanachek Zumaiako Zakila Bira proban 3. bukatu zuen 1:09:37ko denborarekin.





KARKARA

# “Elkarteen eta udalaren arteko harremanak indartu nahi ditugu”

## Bixente Lasa

Orioko Udaleko kiroletako zinegotzia

Bigarren legealdia du Bixente Lasak Orioko Udalean. Ez du gustuko elkarrizketatua izatea, beti atzetik lanean jardun izan baita, Udalean aurpegia ematea tokatu zaion arte. 30 urte inguru eman ditu Aldapa elkartekoekin lanean.

### IKER GURRUTXAGA

Bixente Lasa oiartzuarra den arren, Orioko Udaleko kirola zainetan daramatza. 30 urte inguru daramatza Aldapa elkartean eta haiekin lanean ibili da urte hauetan guztietan, batez ere txirrindularitza probak antolatzen. Orain, Udaleko beste zinegotzieren bultzadaz, kirol mahaia osatzeko ahaleginetan ari da.

### Nondik sortu zen kirol mahaia eratzeko ideia?

Kulturako mahaia bazen Orion, eta aurreko legealditik banuen gogoak halako zerbait kirolean ere egiteko. Gobernuan

kide dugun alderdiak ere beharrezko ikusten zuenez, lanean jarri gara.

### Zein izango dira bertan?

Herriko kirol elkarteak izango ditugu alde batetik. Beren beharrak, kezkak eta egin ditzaketen ekarpenak lehen eskutik jarriko dituzte mahai gainean.

Herriko bi ikastetxeek ere lekua izango dute bertan. Herrian kirola sustatzeko lehen ardura bi horien gainean dago, eskola kiroleko programekin, eta egiten duten lana eta daukaten esperientzia oso baliagarriak dira martxan jarri nahi dugun mahai horren bueltan.

Azkenik, bada jende bat kirol elkartean ez dabilena, baina kirolean aditua dena. Eta horiek ere, zalantzarik gabe, ateak irekiak dituzte. Hau da, kirol mahaian ekarpena egin dezakeela uste duen edozeini ateak irekiko dizkiogu, bertan izateko.

### Eta zein dira zuen helburuak?

Helburuak mahaia berak finkatu behar ditu. Momentuz, elkar ezagutzeko aukera eta gutxi gehiago egin da, lehen aipatutako aditu horiek ez baitute, behar bada, bilera hauen berri izan oraindik.

Guk, gure aldetik dugun helburuetako bat elkarteen eta Udalaren arteko harremanak indartzea da.

Herri honetan kirol ekintza asko egiten dira eta denak elkarren artean laguntzea garrantzitsua izango litzateke. Gehienbat, kirol egoeraren irakurketa sakona egin eta koordinazioa findu nahi genuke.

### Kirol mahaia erabakiek nolako baliario izango dute?

Adituen batzorde moduko bat den neurrian, behar beste garrantzia izatea nahi du Udal gobernua hartuko diren erabakietan. Horretarako, kirol mahaian hartzen diren erabakiak aintzat hartuko dira Udalaren kirol batzordean. Hau da, ez dira gomendio hutsak izango, baizik eta batzordeak ondoren aztertu beharrekoak.

### Beraz, zenbat eta jende gehiago, hobe.

Zalantzarik gabe, berriz ere azpimarratu nahi dut hori. Jendearen parte-hartzea beharrezkoa da, horrelako mahai bat iritzi ugartasunak aberasten du-eta.

# Aiako berri

## “Denbora gehiago emango nuke zahar bakoitzarekin egunero”

**Maria Vilches Álvarez**

Psikologoa

Zarauzko Santa Ana zaharren egoitzako psikologoa da Maria. Edadeko 86-88 inguru lagunez arduratzen da egunero. Proiektu asko ditu, ikasten ari da eta lana pasioz bizi du.

### PAT COWIE

#### Zertaz arduratzen zara?

Egoitzan bizi denari adaptatzen eta ahalik eta gustuen egoten laguntzeaz, bere etxea da eta. Bestalde, egoera kognitiboa eta emozionala neurtzen diot, komeni zaiona planifikatzeko. Mediku, erizain, gizarte laguntzaile, fisioterapeuta, monitorea eta zuzendariarekin adosten dugu nola jardun asteroko bileretan, elkarlana ezinbestekoa baita.

#### Zertan ematen duzu eguna?

Lehendabizi, bertan bizi direnak agurtu. Ondoren, auxiliarrek eta erizainek presatutako eguneratzeko txostenak irakurri, jakiteko ilunabar eta gauen batean norbaiti zerbait pasa zaion, eta konponbidea eman. Akaso, zahar baten balorazioa egin. Auxiliari informazioa eman, tratua egokiagoa izan dadin. Eta monitoreaekin bildu, asteko ekintzak edo ekintza bereziak prestatzeko. Denbora asko hartzen dute lan horiek, eta saiatzen naiz egunero edadeko batzuekin egoten ere.

#### Lan egokia da zuretzat?

Baikorra naiz eta transmititzen dudan bizipoza eta alaitasuna asko eskertzen dute. Edadetuekiko harremana gogoz eta ilusioz lantzen dut, eta eskertzen dute. Gustura kontatzen dituzte istorio interesanteak eta pozak, baina gizarte kasu gutxi egiten zaie. Guzti-guztiek dute zerbait berezia, neure aitona duen bezala, eta horrek bete egiten nau.

Bestalde, beti eguneratzen egoten gara, eta master bat egiten ari naiz haur eta helduen neuropsikologian. Hemen lan egiteak asko laguntzen dit eta ikasitakoa egunero jartzen dut praktikan.

#### Gogorra al da heriotza hurbil dutenkin lan egitea egunero?

Alde batetik, bai. Heriotzaren aurrean



KARKARA

dagoena lasai badago, familia inguruan badu, naturak berea egiten du eta ondo joaten da. Gogorra da ikustea beldurrez doanaren edo desorientatuta dagoenaren sufrimendua. Lagundu behar diot, baina etxeraterakoan deskonektatzen dut, bestela ezingo nuke horrela bizi. Emozionalki lan gogorra da, baina asमितuta dugu, eta eguneroko pozek konpentsatzen dute. Hemen, familiek asko ematen dute eta herena edo etortzen dira bisitan egunero. Ez da gutxi!

#### Nahikoa eskaintzen zaie zaharrei?

Egoitzan langile asko gara eta zerbitzua oinarrikoa, beharrezkoa eta ona da; hori bai, baina beti hobetu daiteke. Harremanak eta komunikazioa asko lantzen ditugu langileon artean baita edadekoekin ere. Ematen diegun arretak urrea balio du, eta pertsona bereziak eta ahalik eta independenteenak direla sentiarazi nahi diegu. Baina amets perfektu batean nahi adina denbora pasako nuke bakoitzarekin, bai eta senideekin ere.

#### “Egoitzan bizi denari adaptatzen eta ahalik eta gustuen egoten laguntzen diot, bere etxea da eta”

“Gustura kontatzen dituzte haien historia interesanteak. Bakoitzak du zerbait berezia neure aitona duen bezala, eta horrek bete egiten nau”

#### Herritarrek ere ematen dute zerbait?

Senideen bisita gutxi dutenak bisitatzen dituzte Nagusilan Gobernu Kanpoko Erakundeetako boluntarioek eta kalera joan, bingoan jokatu... Antzerkia eta kantu emanaldiak ekartzen dizkigute. Eta bertan ekintza berezi asko antolatzen ditugu: gaztetxoekin egun pasak, tortilla lehiaketa, sardina jana, txangak... askotan herritarren laguntzarekin. Mugimendu asko dago hemen!

#### Haurdun zaude. Zer diote?

Aldaketa izugarria izan da erresidentzian, poz handia hartu dute. Ni ikusi bezain laster, alaitzen zaie aurpegia askori; txoratu egiten dira: zer izango den, jertsea egingo didate, gero hara joateko eta haiekin konpartitzeko... Sentitzen dute, neurri batean, haiena ere badela.



Amets Gain kooperatibako kideei trabak jarri zizkieten etxebizitzaren eskriturak egiterakoan. KARKARA

## Amets Gaineko etxe jabeek eman diete arrazoia epaileek

Etxebizitza erostean Aiako Udalarekin hainbat arazo izan zituzten kooperatibako kideek, erosketa baldintzak zirela-eta. Udalak hasieran agindutako kondizioak ez zituela bete diote etxe jabeek.

Amets Gain kooperatibako kideek arazoak izan zituzten Aiako Udalarekin etxebizitzaren erosketa baldintzak zirela-eta. Orain, hainbat urteren buruan, epaileek etxejabeek eman diete arrazoia.

Hasierako baldintza zen etxeak 10 urtean saldu nahi izatekotan, prezioa KPI-rekin lotuta egotea, baina gero 20 urtera luzatu zen. 2007an, ordea, Udalak jakinarazi zien amaigabea izango zela epe hori. *Hasieran, Udalarekin, etxe horiek 20 urtean babestuak izateko ituna egin genuen. Lehen 20 urteetan etxebizitza saldu nahi izanez gero, Aia Lantzen saldu beharko litzaioke edo elkarteak jarritako baldintzen arabera saldu. 20 urte horiek pasatutakoan etxebizitza libreak izango lirake. Udalak zioen Lurzorua-ren Lege berriarekin babespeko etxebizitza guztiak babestuak izan behar zutela, etxeak zutik dauden artean. Guk legedia aztertu eta ikusi genuen ez zela horrela, eta epaileek orain arrazoia eman digute, dio Amets Gaineko Haritz Izagirrek.*

Epaia haien aldekoa izateak sentsazio gazi-gozoa utzi diela esan du Izagirrek. Izan ere, beren esanetan, nahigabea, amorrazioa eta diru galera handia eragin die prozesuak. *Udalak prozesu osoan baldintzak jarri ditu, eskriturak egiteko garaian ere trabak baino ez zizkigun jarri eta interesetan, abokatueta eta epaiketetan diru mordoak joan zaigu.* Orain, izandako galera ekonomikoak Udalak nolabait ordaindukoote dizkien jakiteko zain daude, horren inguruan momentuz ez baitie ezer esan.

### Paperekin baliorik ez

Lehen egindako agiriak ez dute baliorik; beraz, hasieran etxe jabeek Udalarekin hitzartutako baldintzen arabera izan daitezkeen, paperak aldatu behar dira. Momentu honetan aldaketa prozesu horretan daude eta Udalak jakinarazi duenez, gaia lantzen ari dira eta, oraingoz, horri buruzko argibide gehiago ematerik ez dute.

## LABUR

### Kirola

#### Frontoiaren erabilera

Herriko pilotalekuan gero eta jende gehiago dabilela ikusita, eta erabilera egokiagoa eta ordenatuagoa emateko, orduak hartzeko deia egin die Udalak erabiltzaileei. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 22:30era erabili ahal izango da frontoia, ordu eta erdiko tarteetan. Ekainaren 1a bitartean erreserbatu daiteke frontoia eta ordua hartzen dutenek lehentasuna izango dute, Udalak edo kirol elkarteak antolatutako ekintzak daudenean salbu. Pilotalekua erabiltzeko, hilean 10 euro ordaindu behar dira eta dutxak erabiltzeagatik 15 euro hilabetezko. Ordua erreserbatzeko kultur etxera jo edo 943 13 09 24 telefono zenbakira deitu behar da eta, ordua erreserbatzean ordaindu beharko da.

### Aisialdia

#### Eskulanak helduentzat

Goiz Argi aretoan helduentzat eskulan ikastaroak egiten hasi ziren joan zen urriaren 4an eta aurrerantzean ere astean bitan egingo dituzte saioak. Asteartean hari-lanak egiten arituko dira; ostegunetan, berriz, hainbat teknika erakutsiko dituzte egurrerako, metalerako, oihalerako, igeltsurako... Saioak 15:00etatik 18:00etara izango dira. Ikastaro bakoitzak 50 euro balio du eta ordainketa bi zatitan egiteko aukera izango dute eskulanak egitera joaten direnek. Euskadiko Kutxan egin behar da ordainketa, 2101 0027 31 0004156055 kontu zenbakian, eta, ondoren, kultur etxean aurkeztu behar da agiria izena ematean.

### Bertsolaritza

#### Olaso eta Otamendi finalera

Usurbilgo Bota Punttuba bertso eskolak estreinako antolatutako Udarregi sari-ketan, finalerako txartela eskuratu zuten Martin Rezabal Olaso eta Jose Luis Otamendi aiarrek Patxi Etxeberrria oriotarrekin batera, Santueneako jaietan jokatutako bertsolari helduen lehen finalerdian. Garai bateko bertsolaritzak zuen bizitasuna agerian utzi zuten Olasok, Otamendik, Etxeberriak eta horiekin batera aritu ziren Rosi Lazkanok, Koxme Lizasok eta txapelketatik kanpo aritu zen Josu Oizartabalek. Azaroaren 12ko finalean, bigarren kanporaketan sailkatutako Aitzol Barandiaran, Ane Labaka eta Maialen Belarde bertsolari gazteak izango dituzte aurkari.

## Udazkenean bero?



*toño caliente* esaten diote erdaraz. Udazken beroa, eta ez bero udazkenean. Azken hori gustura hartuko nuke nik, eguzkiaren jaisteak ekarri ohi duen hotzari gogor egin beharrak nire gorputzeko indar apurrak horretantxe uzten baititu, apurtuta.

Politika kutsua du adierazpide horrek, etikarekin zerikusirik ez duena. Besterik behar ez eta, udazkenerako hauteskunde orokorrak jarri dizkigute, eta *beldurra* hitza erabiliko omen da asko, beldurraren mamuak gizartearen eremu zabal bat kikildu eta ikararen bidean jartzen duelako. *Toma castaña!*

Ordea, gizakiak beregan darama agindu isil bezain gogor eta zorrotza: aurrera

egin beharra. Eta hor, beldurrak konfiantza lapurtzen dio bati eta, konfiantzarik ezean, inoren proiektuek ezin aurrera egin. Etorkizunari beldur, erantzukizunean baldar. Eta beleak kar-kar.

Batzuk sinesten dugu gizartearen ez gaudela elkarrekin egoteko, baizik elkarrentzat izateko. Gure pentsamolde, ikuspegi eta eginahalei langa jarri nahi diotenen aurrean garbi daukagu ez dela zuzena beldurraren mamua erabiltzea pertsonak, sortu orduko, izaeraz eta nortasunez bere-berea duen duintasun-

***Beldurraren mamuak  
gizartearen eremu zabal  
bat kikiltzen du***

naren aurka. Denon onbidera garamatzen giza indarrak ematen digula babes eta, ezarian-ezarian, jakituria xume batek dioena barneraturik, *azken batean lur-azalean besteari egiten zaion ona bakkarik gelditzen dela*; alegia, geureganatu genitzakeela bizitzaren malkarretan lagunduko diguten jarraibide ugari: erdipurdikoak, onak eta oso onak. Elkarrekin begirunez, ez elkar gutxietsiz.

Jarrerak landuz. Hurrengoari gertatu zitzaiena gerta ez dakigun. Burla haizeak jota, batek, bera baino exkaxagoa zelako burutazioz edo, galdetu omen zion gaitza pasa zuen beste bati, gaitzaren eraginez begiak okertu eta begirada behartu xamarra nonbait, eta:

- *¿A dónde miras, Iñarra?*  
- *Al norte... ¡como tú!*



## Txokoak eta jendea Gaztelekuan!

Martxan jarri da gaztelekua eta hemendik aurrera gazteen ekarpen eta ideiekin egitasmoak aurrera eramango dira. Asteburuetan bitzen dira. Adibidez, irudian bezala; goitik hasita: Ekaitz, Iñigo, Xabi, Udane, Leire, Itziar, Irati, Ainhoa, Martxel, Aroa, Libe, June, Estitxu eta Naiara eserita. Atzean, Eneko arduraduna.



## ERNIO GAINEAN GURUTZE TARTEAN

**E**rnioko gurutze-bidea aski ezaguna da gure inguruan, baina baita Euskal Herri guztian ere. Irailean izaten dira hango erromeriak, baina urte guztian jende askok egiten du bertara joateko aukera.

Argazkian J.M. Karmona, Martin Andu, Pedro Arregi *cabo caminero*, Domingo Arruabarrena, Pio Salsamendi, Esteban Leunda *Historias* eta kalbarioak egiten zituen emakumea agertzen dira.

Oriotik, beste hainbat herritatik bezala, ohitura handia dago irailean Erniora bisita egiteko. Han, azken igandea izaten da entzutetsuena eta jende gehien piltzen dena.

*Ahotsak.com* atarian Mikaela Urkola Larraulgo emakumeak dioenez Ernioko festak ere disfrutatzen zituzten, herri guztia joaten zen eta. Zelatunen bazkaldu ondoren denak soka batekin lotzen ziren, kalbarioak esan eta jaisten ziren. Iraileko hirugarren igandean joaten ziren Erniora. Parranda handia izaten zen eta ingurukoekin elkartzen ziren.

Argazkikoek ere ziur asko gauza bera egingo zuten, baina Larrauldik beharrian Oriotik joango ziren oinez Ernioko puntaraino.

Izan ere, zeinen eder ikusten den gure herria han goitik begiratuta...

ARGAZKIA: ARTXIBOA

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Carmen eta Txomin  
ARRABEGAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

*Gabon*  
TABERNA  
Plater, karkara eta pintxoak

Tfn: 943 83 06 09

ardoak, urtekiak, gaztak,  
kontserbak, janari prestatuak

**exeraino  
eramaten ditugu**

943 83 09 84 aita lertxundi, 36  
ORIO

# “Minuturo txori mota bat desagertzen da gure erruz”

**Héctor González**

Ornitologoa

Osaba-izeben etxeko hegaztien liburu bat begiratu, Félix Rodríguez de la Fuentearen eta Jacques Cousteauren saioak ikusi, eta pixkanaka zaletu zen ingurumenari buruzko kontuekin. Aitak erositako prismatikoekin, udan, Nafarroako Erriberan, **hegaztiak aztertzen** hasi eta gaur egun zaletasunari eusten dio.

**TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI  
ARGAZKIAK: JOSEMARI GIMON,  
ELIXABETE ZURIARRAIN, KARKARA**

Donostiarra da, Aian bizi da eta Oriora maiz etortzen da. Herri txikietako bizimodua atsegin du, lasai, ingurumenaren erdian eta txoriak gertu dituela bizitzeko ematen dioten aukerarengatik.

**Ikasketarik egin al duzu ornitologian aritzeko?**

Biologia ikasi nahi nuen, baina ezin izan nuen, ingeniari tekniko ikasketak egin nituen. Eusko Jaurlaritzak Txingudiko parke ekologikoko kudeaketa lehia-kerara atera, lagun batekin batera proiektua aurkeztu, eta ustekabearen irabazi genuen. Bost urtez aritu nintzen

han lanean, hegaztien errolda egiten... baina industriara itzuli nintzen. Lana eta zaletasuna ildo beretik joateak nekatu egin ninduen. Hango lanaz gain, Itsas-Enara taldean ere txorien erroldak eta ikerketak egiten nituen, neskalagunarekin ere txoriak behatzera joaten ginen. Orain ingeniari zana ari naiz, eta aisialdian behatzen ditut hegaztiak.



**Zein da ornitologo baten eginbeharra?**

Lehen gutxi batzuk ginen eta orain eremua asko zabaldu da. Orduan 5.000 pezetako prismatiko batzuk eta hegaztien gidaliburu bat baino ez genituen erabiltzen. Mendira joan eta behatzea zen gure eginbeharra baino, zaletasuna.

Orain, badira sekulako optika bitartekoekin zaletasunez txoriak ikusten ari izaten direnak edo horretarako bidaia ikusgarriak egiten dituztenak. Gu zientifikoki prestatuta ez egon arren, kontserbazioan eta gaiaren hedapenean eta ikerketan aritzen gara; kontserbazioan, alegazioak egiten dizkiegu ingurumena kaltetu dezaketen garapen planei, Motondokoari kasurako; ikerketetan, hegaztien erroldak egiten ditugu, batik bat.

Beste maila batean daude adituak, unibertstatetik edo Aranzadi zientzia elkartetik datozenak eta aldizkari espezializatueta idazten dutenak; edo bestelako teknikak erabiltzen dituztenak, eraztuna jartzea adibidez.

**Hegaztiei buruz apenak dakienak nola ezagutu ditzake txoriak?**

Prismatiko eta gida arruntekin hasi behar da. Argazkidun liburuak baino marrazkidunak egokiagoak dira, hegaztiak ezagutzeko xehetasunak hobeto ikusten direlako. Baliabide horiekin eta Pagoeta inguruan ibilaldia eginez, txorien behaketa egin daiteke, betiere, hasieran izan ditzakegun akatsak kontuan hartuta.

**Ezagutzen ditugunak baino hegazti gehiago daude gure inguruan, ezta?**

Aia eta Orio ingurutik atera gabe hegazti mordoak aurki daiteke. Pagoetako parke naturalean, baso-hegaztiak daude eta udaberrian, esaterako, 30 txori mota ikusi daitezke; kaskabeltza adibide bat baino ez da. Pagoeta gainetik Ernio eta Gazumera txori harrapariak daude, mirotzak, esaterako; eta neguan Pagoeta tontorraren inguruan, urtero, 20-30 durdulak egiten dute lo.

Oria ibaiaren inguruak ere izugarriak dira, Gipuzkoako zatirik basatiena, batik bat Usurbil eta Orio artekoa. Araztegiei eta enpresen itxierari esker, ura pixkanaka bere onera etortzen ari da. Horren adibide da, orain dela gutxi Usurbil eta Orio artean korrokoiak arrantzatuz ikusi dugun arrano arrantzalea.

**Zein dira gure inguruan ohikoenak?**

Oria ingurua oso ona da lertxunak begizatzeke: lertxun hauskarak, lertxuntxo txikiak, lertxuntxo itzainak... azken horiek Aia inguruko zelaietara joaten dira zizareak, barraskiloak... hartzera. Hegazti harrapariak ere badaude:

Aian zein Orion belatz handiak, goitik behera azkarren amiltzen direnak, beha daitezke. Itsasoko hegaztiak, ekaitz egun batean barrara joanez gero, ikus

“Lana eta zaletasuna ildo beretik joateak nekatu egin ninduen. Orain ingeniari lanetan ari naiz eta aisialdian hegaztien behaketa eta zaintzan aritzen naiz”

“Prismatikoekin eta hegaztien gida arrunt batekin eta Pagoeta inguruan ibilaldia eginez, txorien behaketa egin daiteke, betiere, hasieran izan ditzakegun akatsak kontuan hartuta”

“Oria ibaiaren inguruak izugarriak dira txorientzat. Gipuzkoako zatirik basatiena da, batik bat Usurbil eta Orio artekoa. Araztegiei eta enpresen itxierari esker, ura bere onera etortzen ari da.”

“Itsasoko hegazti asko dago inguruotan. Ekaitz egunetan barrara joanez gero, ikus daitezke: zangak, ubarroi mottodunak... Negu partean pinguino itxurako hegazti batzuk ere sartzen dira, pottorroak”

“Txori mota batzuk berreskuratzeko Pagoeta, Ernio eta Gazume ingurua zaindu behar dira, besteak beste, parke eolikoa egitearen ideia baztertuz”

“Ingurumenari erreparatu gabe bizi gara. Mendira kirola egitera joateari ondo deritzot, baina horretaz gain, ikusi ditugun animaliak ezagutu izanaren pozez itzultzea polita da oso”

daitezke: zangak, ubarroi mottodunak... Negu partean pinguino itxurako hegazti batzuk, pottorroak, sartzen dira ia kirol porturaino, baita okilak ere. Aia inguruan ikus daitezke okilak, arrano txikiak, arrano sugezaleak, zapelatzak, miru beltzak, putreak, sai zuriak...

**Eta hor daudela jakin arren ikusteko zailak edo ezezagunak direnak?**

Jendeak uda partean, etxe artean, txilioka pasatzen diren txoriak enarak direla uste arren, eliza inguruan, arretaz begiratuz gero, enarez gain ikus daitezke enara azpizuriak eta sorbeltzak. Autopistako zubi inguruan, berriz, haitz-enarak. Beraz, enarak bakarrik direla uste izatetik, prismatiko batzuekin lau txori mota bereiztera pasa gaitezke.

**Badira galdu diren hegazti motak, ezta?**

Hegazti migratzaileak, udazken eta neguan etortzen dira, eta Saharaz bestaldeko migratzaileak, udan, negua Senegal, Mali eta Nigerren pasa ostean. Azken horietako asko desagertu egin dira, baina ez dakigu arrazoa zein den.

Landazabala atsegin duten hegaztiak ere desagertzen ari dira, belardiak ere pixkanaka galtzen ari direlako. Basoak, berriz, ugaritzen ari dira landa eremuen utzikeria dela medio; beraz, basoko hegazti kopurua gora doa. Esaterako, lehen, pagadi eta pinudiak gustuko dituen eta garai batean Nafarroko Pirinioetan baino ez zeuden okil beltzak agertu dira Pagoetan. Lertxunak ere, ehizaren eta kutsaduraren eraginez, desagertu ziren Oria ingurutik, baina itzultzen ari dira.

**Zer egin behar da berreskuratzeko?**

Saharaz bestaldeko txori motak berreskuratzeko oso zaila da klima aldaketarengatik eta Afrikako hondamendiarengatik. Zelaiei dagokienez, beharbada, oreka lortuko da baso eta larreen artean. Baina Orian; garrantzitsuena da ardeidoak isileko ehiztarietatik babestea; lertxunek amuarrainak jaten dituzten ustea gezurtatzea, lertxun hauskara kumeak hazten ari baita Orian eta hemen ez dago amuarrainik; beraz, igelak, korrokoiak eta kirol-arrantzarako garrantziarik ez duten arrainak jaten dituzte; Motondo bezalako guneak babestea eta onera ekartzea; eta Pagoeta, Ernio eta Gazume ingurua zaintzea, besteak beste, parke eolikoa egitearen ideia baztertuz eta basoa modu egokian kudeatuz.

**Zein da sekula ikusi duzun hegaztirik bereziena edo bitxiena?**

Azken aldian ikusi ditudanetatik, harritu ninduen joan zen neguan Artikutzan eta Gorbean sortutako 1-2 milioiko txonta multzoak. Txolarreen antzekoa da, baina izugarria zen buru gainetik pasatzen ikustea, gure atzo aldean zegoen pinudian lo egitera zihoazelako.





Héctor González -arrea, koinatua eta semearekin- Britania Handiko Dawlish Warren natura-erreserban txoriak ikustera joanda. Gaiupa. Lertxun hauskara. Okil handia. Ornitologian hasteko ezinbesteko bi osagai: prismatikoak eta hegaztien gida.

Beste gertaera bat ere gogoan dut, ez ikusgarria izan zelako, eman zidan sus-toarengatik baizik. Nafarroan nengoen basozain batekin eperren errolda egi-ten, eta autoan eperrak zenbatzen geun-dela, ezustean, mamu zuri bat bailitzan arrano txiki bat pasa zen gure buruen gainetik, eta begien aurrean ikusi genuen eper bat harrapatu eta alde egiten. **Zergatik kezkatu ia ezagutu ere egiten ez ditugun hegaztiengatik?**

Gurea zaletasun merkea da, krisi garai-rako egokia. Prismatikoak eta txorien gida nahikoa dira gure inguruan hegaz-tiak behatzeko. Gainera, mendi ingu-ruan ibilaldi bat egin eta ikusten duguna ezagutzea funtsezkoa da niretzat. Garai batean, herrian bertan, herriko txorien izenak ez ezik, bailarakoenak ere baze-kizkien jendeak. Gaur egun, ordea, ingu-rumenari erreparatu gabe bizi gara. Mendira kirola egitera eta izerditzera jo-ateari ondo deritzot, baina horretaz gain, ikusi ditugun animaliak ezagutu izanaren pozez itzultzea polita da oso. Gainera, txoriak ezagutzuz gero, horiek babestea gure esku dagoela ohartuko gara. Izan ere, minutuko hegazti mota bat desagertzen ari da eta gizakiak du horren errua.

**Itsas-Enara elkarteko presidente ordea zara. Zer egiten duzue elkartean?**

Gure aisialdian eta borondatez egiten ditugu elkarteko ekintzak. Ornitologiari buruz lan dibulгатiboа egiten dugu, ibi-laldiak antolatuz eta teknologia berrien bidez. Alegazioak eta idatziak egin izan ditugu, ingurumena eta hegaztiak kalte-tu ditzaketen proiektuak egitea eragoz-teko edo bertan behera utz ditzaten es-katzeko. Hainbat ikerketa egiten ari gara, azken hamar urteotan galtzeko arriskuan dauden espezieen jarraipena eginez, adibidez, ubarroi mottoduna.

**Hegaztiak gustuko dituen eta ornitolo-giarako pausoa eman nahi duen jende horri zer esango zenuke?**

Eremu asko dago hegaztien gaiari dago-kionez eta badaude bereziki egokitutako tokiak, aholkularitza eskaintzen dutenak. Zaleari esango diote zein prismati-ko, teleskopio edo gida den aproposa, baita zein hegazti ikus daitekeen ere.

Nik esango nieke ezer gutxirekin eta ahal den guztietan txoriak behatzera jo-anda zaletasuna areagotu daitekeela eta beti aurkitzen dela zalantzak argituko dizkion norbait. Guk espezie bat ezagu-tzeko kontuan hartzen ditugu kantaera, makurtzeko modua, hegada, tentetzen ote den, buztana gorantz jartzen al duen, hegoak nola mugitzen dituen, leku be-rera itzultzen ote den... Iristen da mo-mentu bat txoriak behatzeko prismati-korik ere behar ez dena.

## MUSIKAREN ETA TXORIEN LAGUNAK

**O**rnitologiaz gain, musika du zaletasun Héctor Gonzálezek eta Orioko Danbolin musika eskolan biolina jotzen ikasten ari da Aiara bizitzera etorri zenetik, orain dela bi urtetik. Txorien lagun ez ezik, musikaren lagun ere bada, eta horrek aukera eman dio jendea ezagutzeko eta herrian barnertatzeko. *Hori hiri ba-tean ia ezinezkoa da. Esaterako, klari-netea jotzen duen beste ikasle batekin gelditu eta pieza bat elkarrekin jotzea edo musika eskolako jaialdian biolina jotzea niretzat oso pozgarria da. Horre-lako gauza txikiak Aia eta Orio artean pozik bizitzeko arrazoa eman didate eta orain ez nintzateke hirira itzuliko.*

Musikak bezalaxe hegaztien kon-tuak ere jendea bata bestearengana gerturatzen duela dio Héctor Gonzá-lezek: *indibidualismoa edo bakarda-dea gailentzen diren garai hauetan hori izugarria da. Txorien behaketa egitera joaten garenean, horregatik ez balitz sekula elkartuko ez ginatekeen jendeak bat egiten dugu. Esaterako, Baionan kurrilo talde handi bat dagoe-la eta antolatu, elkarrekin bidaia egin eta ikusiko dugunaz, txorien berezita-sunez... hitz egiten dugu. Giza-balioak krisian dauden garaiotan niretzat zale-tasunak izan dira irtenbidea. Batek he-gaztietan buruz asko jakin dezakeela eta beste batek ezer gutxi dakiela, baina biek batera zaletasun berare-kin goza dezaketela uste du.*

Txori bakoitzak bere kantua duen arren, inguruan hegaztiak zaintzen, behatzen aritzen denik bada, denak gai edo kantu beraren bueltan. *He-rriokoek egiten dituzte txorien inguru-ko gauzak, haien natura kezken harira; Orion bada beste mutil bat hegaztien kontuetan dabilena; Zarautzen, Arka-murka taldearen inguruan ere jende dezente dabil. Usurbil eta Zarautz arte-an, hegaztien kontuekin ez ezik, natura gaiekin jende asko aritzen da lanean.*

Poliki-poliki egin du Héctorrek bere kabia Aia eta Orio artean, txoriek be-zala eta haien musika lagun, adiski-deak ere aurkituko ditu kabiaren bueltan.

# Xehetasunen garrantzia

**L**ez naiz oso pertsona behatzaileria. Baliteke nire albokoak arropa berria erostea edo ilea moztea eta ni ez konturatzea. Hori ongi dakite ezagutzen nautenek. Halakoak sarritan gertatzen zaizkit. Kontu batzuetarako oso despistatua naiz, baina aldi berean detaile txiki, eguneroko horiei garrantzi handia ematen diet. Agian garrantzi handiegia. Irakurri eta zuek erabaki!

Aurreko egun batean, etxetik kalera nindoala, neska koadrila bat pasa zen bizikletan nire albotik. Eta konturatu gabe, nerabe gazte horien hizketaldia entzun nuen. Asteguna zen eta neska taldea astebururako planak egiten ari zen. Igandean Kilometroak ospatzen zen Azeptian eta lagun taldeko nerabe batek Urola aldera joatea proposatu zuen. Eta ondotik besteak esan zion: *Ba al dakizu Mariak* —ez da benetakoa izena— *zer galdetu duen gaur?* Eta besteak: *Ez bada, zer esan du?* Eta honela azaldu zuen kontua neskatok: *Kilometroak zer*

*den galdetu du. Eta nik erantzun diot: Kilometroak? Kilometroak=Litroak.*

Beharbada txikikeria bat baino ez da, baina bada gaizki egiten ari garen zerbait. Argi dago transmisioan huts egiten ari garela eta ez diegula, gure ondorengoei ikastolek herri honetan izan duten, gaur duten eta bihar izango duten garrantzia behar bezala azaldu.

Euskaldunak jan eta edanaren kulturakoak gara. Mahaiaren bueltan ospatzen dugu ospatu beharreko guztia. Ez

***Erlaxatzen ari gara, ikastolak eta euskara osasuntsu daudela sinestarazten digute edo sinestarazten diogu geure buruari. Eta errealitatea askoz ere gordinagoa dela uste dut***

dugu besterik imajinatzen! Eta batzuetan ahaztu egiten zaigu jaiaren beraren izana.



Kasu horretan, Ikastolen aldeko edozein jaietara joan eta ahaztu egiten zaigu jai horren atzean dagoena.

Erlaxatzen ari gara, ikastolak eta euskara osasuntsu daudela sinestarazten digute edo sinestarazten diogu geure buruari. Eta errealitatea askoz ere gordinagoa dela uste dut. Eta ez dago Iparraldeko edo Nafarroako ikastoletaraino joan beharrik. Gure etxeetako balkoietan zintzilikatuta eduki genituen H trapuez gogoratzen?

Bukatu aurretik autokritika ere egin nahi dut. Oker ez banago, 2005az geroztik ez naiz Kilometroetan izan. 2005ean Aretxabaletan egin zen Ikastolen jai eta Eskoriatzan ikasten ari nintzenez, etxetik gertu geratzen zitzaidan. Bada, hurrengo urtean urriko lehen igandean Andoainen izatea espero dut. Han elkartuko gara gustuko baduzue!

**AHOLKULARITZA**  
Fiscalia, laboraria, kontableak

**Eugenio Garmendia**

**ASEGURU ARTEKARIA**

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**Goizeko**

**KAFETEGIA**

☎ 943 83 28 55

Ara Lantxandri 33 baretan - ORIO  
Autobus parada ondoan

**PIZZERIA**

**KALETA**

ARRANTZALE NALEA, 10  
TELEFONOAK: 943 24 89 46

**LUXARBE**  
*preziositate*

Igeltseritza onkorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfn: 943 59 59 00

**BACHEN LOREAK**  
**OREKA ENERGETIKOA**

trahamendu hartuak -  
- oreka energetikoak -  
- laborari loreak -

**Itxar Fernandez Murguiri**  
Tel: 655 726 291  
email: oroka@bushenergy.com

**ITZIAR**

**kirolak**

Tel. 943 83 31 03

**ITSASADARRA, S. L.**

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel: 943 69 40 29 Fax: 943 63 54 94 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ibai Ondo 4. beheaz. 20810 Orto

**INDO**

**Garraio frigorifikoa**  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

# Erakundeen erantzukizuna

**E**gun hauetan bolo-bolo dabilta erakundeen artean sortutako bi-koiztasunak eta horiek dakartzaten ondorio ekonomikoak murrizteko asmoak. Agindua bat, emana bi, beraz, aginduekin konforma hadi. Erakundeek emandako aginduak eta egindako promesak bi baino gehiago izan ohi dira askotan, baina agindutakoa eta egindakoa haizeak erakunde batetik bestera eramanez gero hutsean geratzen dira maiz; beraz, alfer-alferrik.

Jaurlaritzak bota du lehen harria eta Aldundiek erantzun diote asaldatuta. Ez dakit nik zer dioen Jaurlaritzaren txostenak, baina aspalditik bagenuen susmoa erakundeek sarritan sortu izan dituztela alferrikako hainbat kudeaketa-organu eta horiek sortzen zituztela tamainaz kanpoko gastuak.

Euskal Autonomia Erkidegoa aginte erakunde bezala daukagu: Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalak, Partzuergoak, horiek sortutako sozietate publikoak eta horiek gutxi balira Espainiar estatuko erakundeak. Adibidez, A8100 kilometroko autobidea kudeatzeko bi enpresa publiko sortu ziren, Bidegi Gipuzkoan eta Interbiak Bizkaian, bakoitza bere azpiegitura eta karguekin.

**Moilako obrak Kostasen ardura izan dira; trenbidekoak Eusko Jaurlaritzarenak; honen azpiko errepidearena Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, autobideko obrak bezalaxe. Udalak ez du hor aginterik, baina erakundeen arteko eztabaida luzeak, ondorio latzak dakartza**

Hori hobeto ulertzeko Orioko adibideei erreparatu besterik ez dago: moilako obrak Kostasen ardura izan dira; trenbidekoak Eusko Jaurlaritzarenak; honen azpiko errepidearena Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, autobideko obrak bezalaxe. Udalak ez du hor aginterik, baina erakundeen arteko eztabaida luzeak, ondorio latzak dakartza; eta ez batean ez bestean apenas hitzik izan arren, udal herritarrok pairatu behar ditugun ondorioak, hain zuzen ere.

Herritar soiloi ez zaigu axola zein erakunde arduratzen den trenbideko obretaz edo Santiorako bidea txukuntzeaz. Guri inporta zaiguna da herria txukun izatea, erria eta hondartza garbi eta, egindako obren ondorioz, nahiz eta aurrerapenaren izenean eginak izan, kutsadurarik edo zaratarik ez jasatea.

Euskalduna hitz gutxikoa omen da, baina zertarako hitz egin herritarroi ez bazaigu iritzirik eskatzen halako obrak egin behar direnean? Kargua karga dela dio esaerak, kargudunek baino pisu gehiago sentitzen dugu, ordea, herritarrok geure bizkar gainean. Eta horren aurrean ez dakigu nora jo.

Trenbide azpiko bidea gaizki badago nora zuzendu behar gara? Edo autobide azpiko Txankako tunelean pasatzeko argirik ez bada, zeini egin behar diogu argiteria jartzeko eskaera? Orduan, batetik bestera erabiltzen gaituzte eta inor ez da arduratzen horren konponketaz. Hori bai, erakunde bakoitza ondo arduratzen da bere izena eta logotipoa jartzeko guztiok jakin dezagun nork egina den. Izenak ez du, ordea, egiten izana. Baina obren berri ematen duten plaka horietan, ez dute jartzen nora zuzendu behar ditugun gure eskaerak erakundeetara helarazteko.

Obra publiko gehienetan segurtasun falta nabarmena izaten da herritarren kalterako. Tren geltokiko obrak bi urtean jasan ditugu herritarrok eta oraindik arriskutsua da hara iristea, bukatu gabe daudelako. Beraz, hobe arriskuari aurrez begiak ezarri, kalte handiak ez ditezen etorri. Norena da erantzukizuna? Udalak egin dezake bitartekaritza-lana?

**Nire honetan**  
Ana G. de Txabarri

*Do you understand?*

**E**uskal Herria itxura galtzen hasi zen eguraldi mapetan desgertu arte, behin. Hurrengoan, ETB1 piztu eta, ingelesez hitz egiten entzun nituen filma batean eta gero bestean. Azpigiturik ez. Gutxira, marrazki bizidunei ere gauza bera pasa zitzaion: ingelesez ari zirela. Fenomenoa ez zen ETB2n ematen, euskarazko kateetan bakarrik.

ETB2ko informatiboetan, frantsesak frantsesez, katalanak katalanez, bakoitzak berean egiten zuen, itzulpena behean jarrita eta, zer gauza, euskaldunak... gaztelaniaz. Horrela, gaztelaniaz entzun nituen oriotarrak gure traineruaren gorabeherak azaltzen; baita beti euskaraz egiten duen jendea ere, euskaldun denak gaztelaniaz. Haserretu nintzen: Euskal Herria mapatik kendu ez ezik, euskaldunak ere, gu ere, borratu nahi gaituzte?

Erantzuna etorri zen orduan. Agidanez, garunaren funtzionamenduaren gainean azken ikerketek diote, zenbat eta hizkuntza gehiago ezagutu, orduan eta kalte txikiago eta beranduago eragiten omen dutela gaixotasun degeneratiboek. Eta ni gaizki-esaka Telebistako agintarien kontra sututa! Gure hobe beharrez ari dira-eta euskaldunok hizkuntzak ikastera behartzen gaituztenean! Maite gaituzte.

**agirresarobe**  
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
- FATXADEN ERABERRITZEAK
- IGOGAILUEN PROIEKTUAK
- GREMIO KORDINAKUNTZA
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 5, 5. BULEGOA, ZARAUTZ  
SORJA AGIRRESAROBEN ARKITEKTOA 635 731722

**AKOBE ACTIVA**  
JUAN ALBIZU

Etiketresna elektrikoak  
sukaideko altzariak

Abeasari, 6 20810 ORIO  
Tel/Fax: 943 83 12 49 - albizu@activahogar.com

*Lizaso*  
*dekorazioa*

Eusko Gudari, 4/II  
Tel. 943 83 00 84 Fax: 943 83 00 84

**LOBETXU JATEKOA**

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

**LURDES**  
*27/01/1970*

Eusko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24

ile zaindegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - baxo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**ALTXERRI**  
*Karta enberrina*

*Astriberrina, eguerdi eta guretan,  
menu bereziak*

**943 83 07 62**

**Alustiza Autobusak**  
*2010-11 Bidaiak S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80 • Mugikorra: 656 78 40 01 - 656 78 29 99

**ARIDATA moda**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 86 • 20810 ORIO

**Joana Murgiondo**  
*Asaguru-agentea*

ASEGIURUAK

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**TANATORIO ZARAUZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

**Hilabete zerbitzu orokorrak**

- \* Denaio eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldiarako zerbitzuak
- \* Belatorio gelak
- \* Koroiak, eskalak, tronitziak...

Araba kalea, 35. Zarauz

Tel: 943 88 48 37 / fax: 943 88 48 41  
e-mail: hanzpiti@hanzpiti.net

**943 83 09 86**

**KOASTA**

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

**ARKAITZ**  
**Taberna**

Pintxoak,  
plater konbinaluak  
eta ogitarieko mundialak

ABESLARI TALDEA

Tel: 943 83 16 57

**KOLON TXIKI**  
*komertzioa*  
*gestioa*

Herriko Enparantza, 4  
ORIO

Tel. 943 83 90 44

**MIRANDA**  
*2010-11 Bidaiak S.L.*

Gelma, ala, lilla, okadera...  
belar dinu, anis, lamiak  
eguzko 0,1kg/ku

Zarauzko Bidea, 1 • 460 42 32 70 • ZARAUZ

**azkue**  
**karrozeria**

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

Tlfax: 943 83 51 86 Camocerasazkue@hotmail.com

**iñaki argazkiak**  
**caperochipi**

*ezkontzeko usmarik bai?*

www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**PERTSIANAK**  
**AKO MAZ**

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel: 943 83 01 86 / 83 80 52 • E-posta: hdtg@osadi@cajanet.net

**bodegasERRASTI, S. L.**

Esualderako baratzaletan  
Zudugarai, Getariako txakolina  
Ilagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gallur: Señorio de Laurigila  
Gallur eta Ardanchelegi  
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 80 52 • E-posta: hdtg@osadi@cajanet.net

## Gaia emanda Lan egin zenuen Pilarika egunean?

*Urtero sortzen dute hizpidea Hispanitatearen egunak edota Konstituzioarenak. Batzuek diote hobe dela 'festa egun' horietan lan egitea. Zer diozu?*

### Hik jai eta nik lan!

**U**rte hasiera iristen denean edota kurtso hasierarekin batera, hainbeste miresten ditugun egutegiak banatzen dizkigute lantegian zein eskoletan, eta denok adi-adi begira, egutegian markatuta agertzen diren egunak zenbatzen hasten gara –hau marka! lanean hasi berri eta jada opor egunak kontatzen– zenbat jai, zenbat zubi, zenbat *akueduktu*... eta segituan gure buruan planak, irteerak, parrandak... zenbat pentsamendu golpera! Baina pentsamendu horietan gutxi batzuk hasten gara jai egun horien zergatiari begira. *Bost axola, jai da!*

Azken egunetan ere, sarri xamar entzun dut: *Aste motxa dator, jai da eta! Asteazkenean jai da!* eta horrelakoak bata bestearen atzetik. *Hau da, hau, jai egin beharra duena jendeak* pentsatzen dut nire artean; izan ere, nirekin hitz egin berri duen laguna inor baino euskaldunagoa da eta bera era jai egun hori lasai ospatzeko asmoz? Eta lasai gelditu, gainera! Baina bai? Jai al da? Ala zuk ospatuko duzu jai egun hori?

Galdera horiek egiteak, ordea, ez du berebiziko garrantzirik batzuetan, izan

ere, balantza batean jarriz gero, gehienak jai eguna aukeratzen dute, klasera ez joatea, lantegira ez joatea... eta, jakina, igande bat bezala denez, bezperan parranda egin eta asteazkena lo pasatzea edota igande goizetan bezala, kalera ateratzea *marianito* batzuk hartzera.

Ni, ordea, lanera joango naiz, nire lantegian egun horretan lan egiteko aukera ematen baitigute eta nire orduak sartzean urteroko zitara joatea izango dut, independentziaren aldeko manifara, jai arrotzak ospatzeko gogorik ez dudalako!

**Ekine Saizar**

Hezitzailea

## Banatzailen lan poltsa osatzen ari gara...



...interesa baduzu deitu 943 83 15 27ra  
edo idatzi [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) helbidera

# Ardo ona bezala, poliki eta gozo dastatzeko musika

## Kritika Giranice

**Giranice.**  
Autoekoizpena  
Sei musika-pista  
2011

**M**usikak ona behar dik izan, portadaren ederra ikusita lotsagarri ez gertatzen! esanda egin nien agur, barrez, Brit eta konpainiari, beren entsegu lokaletik alde egiterakoan, eskuartearen beren lehen lana hartuta. Pixkanaka entzun dut diskoa, mantso, lanari behar duen denbora emanez, egoki liseritzeko: ardo dastatzaileek egin ohi duten bezala, ardoa usaindu, kolorea antzeman, zaporea hartu, zerbait jan, beste ardo batera pasa... Bada, tankeran, baina ardoak beharrean Giranice abestiak dastatuz.

Musikalki, hartzaileak aski landutako melodiak izango ditu entzungai. Garbi antzematen da ez dela egun batetik bestera sortutakoa, ez dela azkar egindakoa: errekurtso musikal anitzez daude beteta izen bereziko kantuek.

Ustekabeko tinbre, erritmo zein melodien norabideen aldaketa egokiek, abeslari edo *frontman* baten falta gehiegi ez antzematea lortu du taldeak, zerbait oso zaila, inguruotan dugun ohiko *musika taldearen* kontzeptua kontuan hartuta. Instrumentu antizak eroso antzeman daitezke *rol* ezberdinetan, el-



Beheko irudian, duela bi urte eman zuten kontzertuan. GIRANICE / KARKARA

karren artean melodia nagusia eramatearen erantzukizuna denboraz aldatuz. Abilezia aparta erakusten du taldeak, erritmo dantzagarri eta melodia alaietatik, ezustean, mantso eta doinu melankolikoetara pasatzeko, edo alderantziz, aukera ugariarekin dotore jostatuz.

Emateaz gain, eskatzen duen musika da Giranicea,

zaildua, xehetasun guztiak barneratzeko arreta osoa eskatuko diguna, eta oso barnetik eginga, intimoa, interes komertzialetatik guztiz aske. Bizi garen lekua eta dugun *ingurune musikala* kontuan hartuta, disko iraultzailea iruditu zait, berritzailea oso. Lan ederra!

[ IÑIGO GAITON ]

**Ikasleak idazle**  
Maider Uranga

## Meakaur

**J**oan den astean Zaragueta eskolako LH6 eta LH5eko ikasleak Bizkaian dagoen Meakaur barnetegira joan ginen; baina ez ginen bakarrak barnetegi hartan, Igorreko ikasleak ere han zeuden gurekin batera. LH6koak ziren, bizkaitarrez hitz egiten zuten eta bereiek esaten zuten *giputxarrez* hitz egiten genuela.

Uste nuen asko aspertuko nintzela ingeles zelako egonaldia, baina primeran pasatu dut, lagun asko egin ditut eta hizkuntza landu dugu Aida, Brian, Ana, Itsaso, Toni eta Nagoreekin. Hauek bi ikastetxeetako ikasleak nahastuz bost talde osatu zituzten ekintza guztiak egiteko.

Goizero gai bat lantzen genduen: gorputza, elikagaiak, planetak eta uraren zikloa. Arratsaldean talde bakoitzak bere gaiaren aurkezpena egiten zuen besteen aurrean; eta meriendatu ondoren jolasak egiten genituen afalordura arte. Afaldu eta gero gaueko ekintzak, *night activity*, izaten genituen.

Animatu zaitezte eta saiatu horrelako ekintzak egiten, oso ondo pasako duzue!

**Primeran pasatu dut, lagunak egin ditut eta hizkuntza landu dugu**

Igo zaitoz haize berrietara!

**Galeona I**

943890416-677149934  
galeona1orio@hizmita.com

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1, ezk  
telefon: 943 83 08 12

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta enbrantak

tec.uranga@euskalnet.net  
telefon: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

## » HANDIK ETA HEMENDIK



Gure kultura, hizkuntza, salbatu nahi badugu, politika da bide bakarra. Zer egiten dute estatu independenteek? Beren kultura inposatzen dute. Euskara diruarekin eta lanpostuekin lotu, eta ikusiko duzu nola salbatuko den. Elebitasunaz zentzurik gabe

hitz egiten da askotan. Herri honetan ez dago elebitasunik. Ezinezkoa da 24 orduz euskaraz bizitzea, bai ordea gaztelaniaz. Hizkuntza bat derrigorra da eta bestea aukerakoa.”

**Benito Lertxundi**, abeslaria. Noticias de Gipuzkoa. 2011/10/2

## » OSPAKIZUNA



## Zorionak Lydia eta Conchi

Urria ona izanez gero, uzta ere halakoa omen da eta urrikoak dira, hain zuzen ere, Lydia Etxaniz -ezkerrean- eta Conchi Chavez -eskubian-. Conchi Sevillatik etorri eta urriaren 4an 31 urte bete zituen lagunari Anibarko Portuko adiskideek zorionak eta muxu handi bana eman nahi dizkiete. Bestalde, Lydiak, larunbatean, urriaren 15ean 10 urte beteko ditu, beraz, zorionak eta belarritik 10 tirakada etxekoan partetik.

## » ZORITXARRAK!

## Txirrindulari batzuei

**B**adira Orion Norteko Iturritik hasi eta Bordatxo atzeko bidegurutzera zuzenean batere begiratu gabe bizikleta gainean joaten diren batzuk, kontrako bidean. Egia da autoek ez dutela abiadura egokienean hartzen Xixarioneko buelta hori, baina kontrako norabidean joatearen arriskua are handiagoa da. Gainera, batzuetan gurasoek beren haurrak bidaltzen dituzte aurretik, lehen kolpea txikiek jasoko dutela pentsatu ere egin gabe. Benetan arriskutsua da eta egunen batean susto handi bat gerta liteke auto batek txirrindulari bat jotzen badu. Hori dela eta, gure zoriotxarrak kontrako norabidean ibiltzen diren txirrindularientzat.



**PAPER-DENDA, LIBURUAK ETA OPARIAK**

INPRIMATU (TXURI-BELTZEAN ETA KOLORETAN)  
ESKANEATU (TXURI-BELTZEAN ETA KOLORETAN)  
FOTKOPIAK (TXURI-BELTZEAN ETA KOLORETAN)  
DS INPRIMAKETA  
KOADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK  
FAX ZERBITZUA  
LIBURUAK ETA OPARIAK  
USB GILTZAK

TF.: 943 57 20 83  
FAX: 943 57 11 40  
MUG.: 488 870 433  
Euzenjo@ctmmail.es




INES ASENJÓ  
IBAI OHDO 7. BEHEA  
20810 ORIO



1936an Ingalaterrara ihesi joan ziren maistrak eta haurrak. Ezkerreko bigarrena da *Señorita Rita*, maistra. ARTXIBOA

# Señorita Rita maistra

## Oroimenaren kutxa

**S**eñorita Rita Orioko maistra zen 1936an, gerra hasi zenean. 1912an Donostian jaiotako Rita Gómez ihesi joana zen ordurako Bizkaia aldera. 1937ko maiatzean, Gernikako bonbardaketaren ondoren, Habana barkuan abiatu zen Santurtziko portutik Ingalaterrara. Itsasontzi haietan Euskal Herriko 4.000 haur joan ziren gerratik ihesi. Umeekin, 96 maistra. Haien artean, Oriokoa. Southamptoneko kolonia batean aritu zen haur euskaldunekin lanean, gehienak 1938-39 inguruan itzuli ziren arte. Hori baino lehenago, 1936ko abenduaren 5ean *Junta local asesora-informa-*

*tiva de Orio* izeneko batzordeak dokumentu bat bidali zion *Comisión depuradora del Magisterio* izenekoari: *informes sobre la conducta de los maestros, 1936-1937*, eskatutakoari erantzuteko. Honela zioen, hitzez hitz: *Esta Junta informa respecto a la Maestra Nacional Dña. Rita Gómez, de izquierdas. Sentía simpatías hacia la escuela laica. Particular en su conducta no dio que hablar. Pertenece a familia que no era del Frente Nacional. Se halla ausente de la Villa desde la entrada de las tropas Nacionales en la misma.* Señorita Rita ez zen sekula bueltatu, Ingalaterran gelditu zen. 1942an ingeles batekin ezkontuta, Londresen jarri ziren bizitzen. Ritaren seme Gerald Hoarek Southamptoneko kanpamendu-

ko laguntzaile baten bidez jakin zuen zerbait *Señorita Rita* egindako lanaz: *neska gazte ederra zen, indartsua, alaia, eta gaitasun eta kemen handikoa, zoragarria.* Maistra haiek hutsune handia utzi zuten Euskal Herriko eskoletan. Gero, bestelakoak etorri ziren. Oriora, adibidez, *Señorita Sabina*. Hark ere arrastoa utzi zuen. Oraindik gogoratzen dira harekin orduan neskatila zirenak: *euskeraz hitzerdi bat aditzen bazigun segituan hasten zitzaigun errietan, rojos-separatistas esanez. Harekin ikasi zuten Orioko neskek *Cara al sol con la camisa nueva* abesten.*

[IÑAKI ITURAIN]


## » JAIOTAKOAK

- Oinatz Berasaluze Trillo, Orion, urriaren 6an.
- Mara Sarasua Ezkurra, Orion, urriaren 2an.
- Iera Leunda Larrañaga, Orion, irailaren 29an.

## » EZKONDUTAKOAK

- Asier Garaiar Holgado eta Maialen Murgiondo Jauregi, Orion, irailaren 17an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



**estilo berria**  
Ogitartelean  
Plater konbinatuak  
Etxeko janaria  
Plintxoak  
943 13 13 12  
Aitor

tel/fax: 943 89 00 69  
Eskola kalea 4 22802 ARATZ  
**URBIDE**  
ITURGINTZA BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

**Zaragueta Eskola orio**  
telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@ezkurritza.net

**RAMIRO argazkiak**  
www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com  
610 69 76 68  
943 83 10 48



# “Odola emateko behar den denbora ez da ezer egiten den onura ikusita”

## Joanito San Sebastian

Odol-emailea

Ez dira asko izango odola ematen hasi eta Joanito San Sebastian oriotarraren markara iritsi direnik. Urrikoa izan du odola ematen 85. aldia eta aurrerantzean ere hala segitzeko asmoa du, 100 betetzera heldu arte gutxienez.

### IRATIAGIRREAZALDEGI

Oriko odol-emaileen elkarteko koordinatzaile Kristina Atorrasagasti lehengusua du Joanito San Sebastianek eta hark gonbidatuta hasi zen 1983an odola ematen, gaur arte.

#### **Nolatan animatu zinen odola ematera?**

Gaztea nintzen eta orduan ez nion odola ematearen garrantziari erreparatu, baina orain ikusten dut odola behar dela.

#### **85 aldiz eman duzu, azken honekin.**

75 aldiz emandakoan, diploma berezi bat eman zidaten eta hortik pasa naiz, gaur egin dut 85. odol ematea. Hori norberarentzat ere pozgarria da, esan nahi baitu bizirik nagoela eta odola emateko ongi gainera. 70 urtera bitartean 100etik gora odol emate egin ditzaket eta oso gutxi iristen dira horretara.

#### **Zenbatean behin ematen duzu odola?**

Urtean lau aldiz. Gizonezkook lau bider eman dezakegu eta emakumezkoek hirutan. Izan ere, hilerokoarekin odola galtzen dute. Orion hiru hilabete behin egiten da odol ateratzea. Nik, hasi nintzenetik, behin baino ez dut kale egin, gripearekin nengoelako.

#### **Nolakoa da odola emateko prozesua?**

Anbulatoriora iritsitakoan tentsioa hartzen digute, orratza sartu eta odol lagin bat atera, analisia egiteko, eta galderak egiten dizkigute bakuna edo botikaren bat hartu dugun jakiteko. Gero, odola eman badezakegu, kamillan etzan eta odola ateratzen digute. Nik 400 zentilitro ematen ditut aldi bakoitzean, baina ez dut inolako beheraldirik sumatzen. Hala ere, indarberritzeko ogitartekoa jaten dugu.

#### **Zertarako erabiltzen da odol hori?**

Istripu bat dela, larrialdi bat dela, eba-kuntza bat dela, ospitaletan egunero behar izaten dute odola eta 10 minutu odola ematen pasatzea ez da denbora, gero zein onura egin dezakegun ikusita. Askodaude behin eman eta gero urtebete beranduagora arte etortzen ez direnak, baina konstantzia izatea hobe da.

#### **Odol guztiek balio al dute?**

Nik 0 negatibo odola daukat, beraz, edozeini eman diezaioket. Dena dela, atera eta analisia egin ondoren balio ez balu, gaixotasunen batengatik-edo, bota egingo lukete.

Odola atera aurretik egindako analisien emaitzak etxera bidaltzen dizkigute, eta horrela jakin dezakegu osasun arazorik daukagun ala ez. Beraz, odola jasoko dutenentzat ez ezik, odola emateak norberarentzat ere onuragarria izan dezakeela esan genezake.

### “Orion urtean lau aldiz eman dezakegu odola gizonezkook eta hasi nintzenetik behin baino ez dut kale egin, eta orduan gripea nuelako”

“Odola atera aurretik egindako analisiak etxera bidaltzen dizkigute, beraz, odola jasotzen dutenentzat ez ezik, emaileontzat ere badu onura”

#### **Edozeinek eman dezake odola?**

18 urtetik 70 urtera bitartekoa izan eta 50 kilo baino gehiagoko pisua duen edo nork, baldin eta hiesa edo hepatitisakutsatzea errazten duten arrisku-jokabiderik eduki ez badu edo azken urtean gaixotasun larrikeria hartzeko arriskua dagoen herrialde batera joan ez bada.

#### **Jendea kontzientziazteko zer egin beharko litzateke?**

Herritarrei esango nieke hamar minutu baino ez direla behar, eta odol horrekin bizitza asko salba daitezkeela. Orion odol emaile kopuruarekin justu xamar gabiltza. Jende gazte asko dago herrian, baina badirudi errespetua ematen diela edo beldurtu egiten direla odolarekin. Norbaitek odola eman nahi badu, Kristina Atorrasagastiri (943 24 87 73) deitu eta jasoko du informazioa. Bestela abenduaren 13an da hurrengo odol-ateratzea eta ambulatiora agertzea nahikoa da.



KARKARA

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Errentan**

- Etxea alokatzeko Orion. Hiru logela ditu. Altzariekin eta beharrezko tresnerekin. 750 euro hilean. Tf.: 678 90 61 66 (Arantxa).
- Etxea alokatzeko Anibarko Portuan. Bi logela ditu eta urte osorako alokairuan eskaintzen da. Tf.: 615 75 76 48.
- Garajea alokatzeko Aita Lertxundi 2lean. Tf.: 609 91 73 99 (Igor).

**Lan eskaera**

- Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsalde. Eskarmentua daukat. Interesatuak deitu lasai. Tf.: 679 85 23 41.
- Neska euskalduna etxeak eta eskaratzak garbitzeko prest. Tf.: 666 03 67 80.

- Neska arduratsuak etxeak garbitu eta adinekoak zainduko lituzke. Tf.: 600 74 56 86.
- Esperientzia duen bertako neska bat eskaintzen da eskola partikularrak emateko. Tf.: 680 45 35 63 (Maialen).

**Aurkitutakoak**

- Ume baten txaketa grisa aurkitu nuen irailaren 26an Ibai Ondon. Galdu duenak deitu zerbaki honetara: 943 83 44 98.

**Galdutakoak**

- Urriaren 2an, Baxoaldeko parkean *Nenuco* panpina ahaztu genuen hartz marrazkidun plastifikatutako poltsa batean. Hartu duenari udaltzaingoan uz-

teko edo 615 71 36 00 telefono zenbakira deitzeko eskatu nahi genioke.

**Saltzeko**

- Intxaurrak salgai. 4 kilo 10 euro. Tf.: 943 83 44 98.
- Garaje itxia salgai Mendibeltez futbol zelaiaren azpian. 20,67 metro koadro. Tf.: 646 28 99 07 edo 630 37 01 38.
- Andatzen, erreformatu berri dagoen 138 metro koadroko etxebizitza salgai. 4 logela eta 2 bainugela. 278.000 euro (negoziagariak). Tf.: 620 33 53 98. atu nahi genioke.

**Zozketa**

- Goiko Kaleko zerbaki sarituak: Marisko otarra: 15319. Gitarra: 15151.

» ITSASOIA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
14	06:16 eta 18:31	00:04 eta 12:21	
15	06:45 eta 19:02	00:34 eta 12:53	
16	07:16 eta 19:34	01:06 eta 13:28	
17	07:50 eta 20:12	01:41 eta 14:06	
18	08:30 eta 20:58	02:20 eta 14:52	
19	09:22 eta 22:02	03:08 eta 15:50	
20	10:33 eta 23:25	04:12 eta 17:04	
21	__ eta 11:58	05:30 eta 18:23	
22	00:48 eta 13:14	06:48 eta 19:32	
23	01:55 eta 14:16	07:53 eta 20:29	
24	02:49 eta 15:09	08:48 eta 21:19	
25	03:37 eta 15:58	09:38 eta 22:05	
26	04:22 eta 16:44	10:25 eta 22:50	
27	05:06 eta 17:29	11:11 eta 23:34	
28	05:50 eta 18:15	11:57 eta __	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

- URRIA
- 14an, Larrañaga.
  - 15 eta 16an, Mutiozabal.
  - 17an, Azaldegia.
  - 18an, Zulaika.
  - 19an, Iriarte.
  - 20an, Larrañaga.
  - 21ean, Mutiozabal.
  - 22 eta 23an, Barrenetxea.
  - 24an, Iriarte.
  - 25ean, Zulaika.
  - 26an, Larrañaga.
  - 27an, Mutiozabal.
  - 28an, Barrenetxea.
  - 29tik azararen 4ra, Lasa.
- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>	
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08	22:40
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>	<b>22:47</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: [www.mugitu.com](http://www.mugitu.com). Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

**LANEGUNETAN**

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45		16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

**ASTEBURUETAN**

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



## Euskal Herriko sentsazioak

Donostiako, Nafarroako, Orioko eta Euskal Herriko hainbat txokotako paisaiak jaso ditu Miryam Sistiaga Guerra Orion bizi den margolari donostiarrak bere koadroetan. Orain dela urte eta erdi hasi zen margotzen erlaxatzeko modua baitu eta jadanik lan asko egin ditu. Horietako 30 ikusgai izango dira urriaren 10etik 28ra bitartean, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara Orioko kultur etxean.

mandalarataldea@gmail.com  
helbidean.

### Bingoa

■ Urriaren 19an eta 26an, bingo saioa adinekoentzat, 16:30etik 18:30era, kultur etxean.

### Kontzertua

■ Urriaren 14an, Low Riders taldearen kontzertua, 22:30ean, Kalakari tabernan.

## Aia

### Podologia

■ Urriaren 15ean. Ordua hartzeko deitu 943 13 11 14ra.

### Bertsoak

■ Urriaren 14an, bertso afaria: Xabier Amuriza eta Xabier Sukia, Unai Manterolaren esanetara. 21:30ean, Urdanetako Izarra jatetxean.

### Kontraportada

Garai batean Orion maila handiko krossa jokatzeko Antilla futbol zelai zaharraren bultzatzen. Esaterako, irudian Diego Garzia, korrikalari aparta izan zena, ikusi dezakegu. Orain, urriaren 23an, Orioko 3. Herri Lasterketa izango dugu.

## Orio

### Hitzaldia

■ Urriaren 19an, *Etxeko erorketak nola aurreikusi eta saihestu* hitzaldia. Hizlaria: Jose Luis Martin. 18:30ean, kultur etxean.

### Informatika

■ Urriaren 18an, *Soflib*, software libreak buruzko ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.  
■ Urriaren 20an, *Gmail*, posta elektronikoa buruzko ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.  
■ Urriaren 27an, *Mugipu*, gerra publikoa Gipuzkoan ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.  
■ Urriaren 17an, 19an eta 28an IT txartela ateratzeko azterketak, 16:00etan, KZgunean.

### Futbola

■ Urriaren 16an, afizionatuen gorengo mailan, Soraluze-Orio, Ezozia zelaian.  
■ Urriaren 16an, kadeteen ohorezko mailan, Real Sociedad B-Orio, Zubietan.  
■ Urriaren 16an, jubenilen lehen mailan, Orio-Zestoa, Mendibeltz zelaian.  
■ Urriaren 16an, emakumezko seniorretan, Hernani-Orio, Zubipe zelaian.  
■ Urriaren 23an, afizionatuen gorengo mailan, Orio-Ilintxa, Mendibeltz zelaian.  
■ Urriaren 23an, kadeteen ohorezko mailan, Orio-Zarautz, Mendibeltz zelaian.  
■ Urriaren 23an, jubenilen lehen mailan, Anaitasuna-Orio, Azpeitiko San Juan zelaian.  
■ Urriaren 23an, emakumezko seniorretan, Orio-Ostadar, Lasarteko Michelinen.

### Saskibaloia

■ Urriaren 14an, Gipuzkoako bigarren mailan, Alustiza autobusak Orio-Donosti Dolphins, 20:15ean, Karela kiroldegian.  
■ Urriaren 22an, infantil nesken lehen urteko parte-hartze mailan, Orioko Ikastola ZAST-BKL, 09:30ean, Karela kiroldegian.  
■ Urriaren 21ean, Gipuzkoako bigarren mailan, Alustiza autobusak Orio-Oiarso, 20:15ean, Karela kiroldegian.

### Ikastaroak

■ Urriaren 15ean eta 16an, energiari buruzko oinarrizko ikastaroa. Larunbatean, 16:00etatik 21:30era eta igandean, 11:00etatik 18:30era, Mandalara taldearen lokalean (Iturbide, 7). Izen-ematea: kultur etxean, 648 487 489 telefono zenbakian edo

